

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Birabarki eta daratulu

PRESSLER DARATULUA ala Pressler birabarkia? Ez dakit arma hilkor honi zein izen eman... Pressler, 1867an asmatu zuenaren ohorez eta birabarkiarena baino daratuluaren antza handiagoa hartzen diodanez, Pressler daratulu. Botilari kortxo kentzekoaren tankerakoa da. Zuhaitzari, arbolari enborrean erdi alderantz biraka-biraka sartzen zaio eta sartu den tarte horretako lagin bat ateratzen du. Arrazoi asko izan daiteke daratulu egurrari sartzeko. Puska erakusgarriak zuhaitzak izan dituen bizitzako gora-beherak argitzen lagun dezake, hazkuntzaren eta sortu duen egurraren ezaugarriak dira, batez ere, azaleratuko direnak: eboluzioa eta garapena, urtetik urterako aldea, anatomia, mikrodentsitatea... Dendrokronologiarako erabiltzen da, ordea, batik bat, daratulu hau, zuhaitzaren adina jakiteko, alegia. Eta adin hori jakiteko azaletik bihotzerainoko zulo bat egiten zaio. Hau da, zuhaitzak ondoen babestuta duen enborraren ardatza kanpora irekitzen da. Hauxe gaitz eta izurriteen pagotxa! Landarea biho-

tzetik erasotzeko bidea libre, eri-kutsu guztiak zartatuta! Gutakoren bati zer pentsatzen duen galdetu eta erantzuten ez duelako, erantzun horren bila jo eta burua zulatu eta garun puska bat kentzearen antzekoa da. Eta adina jakiteko burukeria mainatsua izan duen txoribururen baten apetagatik.

Zenbat holako? Zenbat apeta, gura, nahikeria, gutizia eta laineza? Eta, zenbat txoriburu? Daratuluarena bezalako makina bat astakeria ikusi behar izaten da, hamaika kirtenkeria. Gainetik, hobe beharrez egiten duenaren ustea izan ohi du kaiku astazakilak. Okerrenak inausketa lanak dira. Haragi bizian, egurra bistan utziz azala edonola kentzen da, gutizia txoro baterako: zuhaitza itsusia dela, gora hazten ari dela, okerra dagoela... Eta zauri tzarrak egindakoan, erruki-miserikordia-gupida kristaua erakutsiz, pinturarekin estali. Egin dakioken okerre! Zauria orban-tzea erraztu beharrean galaraziko diona. Eta jendea ezin kaskoan sartu, landarea bakean uztea dela onena. Hau da hau miseriak indarra hartzea!

Suro

Arano nafarrean bada Suro izena duen auzoa, dotoreetan dotoreena. Naturaren baitan txiki sentiarazten nauen zerbait bada hara noanero. Horra paisaia kulturala. Neure

amonon amonen amonengana naramana... Hauxe tar-tean, elorri zuria (*Crataegus laevigata*), huntzak (*Hedera helix*) ustez azpian hartua eta mihuraren tala (*Viscum album*).



JAKOBA ERREKONDO